

NESKEN ALDI (hiru zatitan)

MAYIE: Ostatuko andre geia.

MAYALIN: Mayiren ahizpa gaztea.

ANDRES: Ostalera (45-50 urte) politikan churia.

CAPITEINA: Mayi-ren aitatchi aras chaharra.

ERRIENTA: Politikan gori errabiatua (charkoa, 40 bat urthe)

KAK ERRE: Mayirentzat Andresek daukan gizona.

PERTOLI: 50 urtheke gisa-gaichoa Mayiri begia emana.

CHURUPERO: Edalea.

K ATTALIN: Atcho chaharra.

BRIGADIERRA

JANDARRIA: Mustatchadun beltza.

MICHEL: Mayiren gizon geia.

x x x x

I

Ostatu barnean. Igande goiza. Mayalen kontoarretik, sukalderat. Pertolli eta Churupero mahain batean buruz buru jarriak, botoila arnoa hustueha aintzinean kantuz:

- Aurten arnoa merke da

Lau bortz sasetan pinta da

Andreak ere edaten dute erreberroa bezala

Batek bertzeari diotelarik motoa chuchen dozatela.

PERTOLI: (Kontoarreko alderat bazterka behaturik)-Errazu, Churupero, kontseilu bat banuke zuri galdatzeko.

CHURUPERO - Gu, bethi prest gare kontseilu emaiteko.

PERTOLI - Gauza serioa da arras serioa! Eta. . holako kasuetan adichkiden la-guntza bethi hartzeko da.

CHUR. - Milesker ni hautaturik hortako. . . Zertaz da bada ichtorioa?

PERT. - Zaude... (basoak bethetzen ditu) Lehenik hitz eman behar dautazu, ez zarela lausenguz ariko. Gogoan duzuna garbiki erraitea, nahi dut!

CHUR. - H ala nahi duzunaz geroz, hala eginen dugu.

PERT. - Ez dezaket jasan, faltuki artzen diren adichkideak.

CHUR. - Ba, alainan...

PERT. - Eta oraiko egunean, adichkide zintzo guti odo baterez.

CHUR. - Egia hori.

PERT. - Hitz eman ezazu beraz, Churupero ahoan bilorik gabe mintzatuko zarela.

CHUR. - Hitz ematen dautzut.

PERT. - Ala f ede?

CHUR. - A la fede.... Zer da zure arrangura?

PERT. - Nik jakin nahi nukona ongi eginen dutanez ozkontzea.

CHUR. - Nor ozkondu... Zu?

PERT. - Ni ba. Zer iduritzen zautzu?

CHUR. - Lehenik gauza bat erran behar dautazu.

PERT. - Eta zer?

CHUR. - Zer adin duzu orai?

PERT.- Zer adin?

CHUR. - Ba.

PERT. - Egin erraitoko, ez dakit, bainan esagarri onadut.

CHUR. - Ez baitakizu, zer adin duzun, uti gora behere bederen?

PERT. - Ez dakit, ez... uste baduzu, horri kasu ematen en.

CHUR. - Errazu, zer adin zinuon elgar ezagutu ginuelarik?

PERT. - Zu, gure herrirat etorri zinelarik? Doidoia hogoi urte.

CHUR. - Zenbat urte omen ditutzu errotan mutil?

PERT. - Zortzi urte eskasak.

CHUR. - Eta, Piarres arno martch antarekin?

PERT. - Zazpi.

CHUR. - Karrosa zoin baton mutil ere, ez zere egona guti edo azki?

PERT. - Ba Martin-Koche erraten zioten batokin.

CHUR. - A, To. Martin Koche?

(Kantuz:) Nafartara noiz eta deitzen Martin-Koche

Arno gozoa urte omen dut sob'rache.

(Perttolik laguntzen du bururatzen)

Debur frantsesek naute trufatzen holache:

"Il était Martin, gai, gai, gai, dimanche.

CHUR. - Eta noizetik geroz ari zere zure kondu?

PERT. - Ori, Martin-Koche nausia hil zelarik, haren andreak denak saldu zauskiten et bera Baionarat gan zen bizitserat.

CHUR. - Otsailaren ondarean hamabi urte eginen ditu horrek . .

PERT. - Justu otsailaren hogoi - ta hamarrean edo hogoi-ta hamekan...

CHUR. - Hamabi urte beraz, . . Bortz urte Martin Kocherekin holdu da hamazazpi, zazpi arno martch antarekin, hogoi-ta lau. . . Zortzi urte Errotan, heldu baita hogoi-ta hamabi; eta hogoi, elgar ezagutu ginuelarik : Holdu z uskitzu, zuhaurek diozunaren arabera, berrogoi-ta-hamabi, berrogoi-ta hamahiru urte.

PERT. - Nik berrogoi-t -hamabi urte? Hori ez ditakena da.

CHUR. - Jesus, karkulak chuchen ditugu bada. Eta adichkide gisan, garbiki mintza nadin galdetu dautazu. Hit omen bezala den bezala erranen dautzut: ezkontza ez da zuretzateko gauza.

PERT. - Ezkontza ez neretzateko gauza?

CHUR. - Bada donotako adin bat. Chuchen da gazteak ezkontzeari pentsa dozan; aint-zinetik karkulak behar ere ditu egin... Amoratzea, gastentza loratzea... Bainn gure adinean! zorotzea da!

PERT. - Bainan ni gazte naiz...

CHUR. - Gazte ala ez gazte, ez dut komprenitzen Pertolli, berrogoi-ta hamabi urtez uros izan ondoan, zer egin zautzun. Badakizu errana dela: Ezkont eguna zorion biharamuna. Aspertu ote zere bada zorionaz beraz...

PERT. - Bainan...

CHUR. - Orai arte, ezkondu gabe geldituz, zuhurki jokatu zare; eta zer! Orai

PERT. - Bainan, zinez ari zare Churupero?

CHUR. - Gogoan dutana erraten dautzut, nik... Ez zaitut, albainan, ezkontzeko, erraten chal, astokeria baton egiterat beroaraztea bailiteke.

PERT. - Nik ezkondu nahi dut bada. Eta ez dut zorokeria eginen, andretzat hautatua dutan neskatcharekin, ezkonduz... Egia errateko, hiru baditut hauta.

CHUR. - Hotarik biek zer chantza izanen duten.

PERT. - Nik ere chantza izanen dut, harructarik maiteena dutanarekin ezkonduz.

- CHUR. - A! hori bertzerik da. Lehenago erran bezi nautazu.
- PERT. - Hura egiazki gustukoa dut;... eta bihotz-bihotzetik maite dut. .
- CHUR. - Bihotz-bihotzetik maite duzu?
- PERT. - Uste nuke; eta... egun berean solastatu gogo dut.
- CHUR. - Orduan, ezkont zaito, ezkont; ez dut pitsik erratekorik.
- PERT. - (biak chutitzen dire) -Hala beharrean, oraino nechkatcha hura burutik utz nezake... Uste duzu, Churupero, eskontzeari uko egitea hobe dutala?
- CHUR. - Orain, berriz dudan zaudu?
- PERT. - Nere adina ez dezagun aipa, eta guzak diren bezala ikus ditzagun. Ezagutzen duzu, hogoi-ta hamar urtheko mutiko gazterik, ni baino freskeago eta sendago donik? Ez naiz airos eta arin ni?
- CHUR. - I di toharra, beti ergi! (Irri ergel batean) Ho! ho! ho!
- PERT. - Nahi duzun bezenbat, bainan ez ditut ahoko guziak hemen eta onak?
(Hortzak irakusten ditu)
- CHUR. -D itazken hoboren ak;... andreak gogotik ikusiko zaitu segur, sukalderat hortzak ahoan heldu.
- PERT. - Ez ditut nik egunean lau apairu erdi egiten? (Estomaka erakutsiz) Errota hunek donak ehotzen ditu aitzina (Eztulka) Ho! Zer iduritzen zautzu?
- CHUR. - Hala da. Makur ari nintzen. Ongi eginen duzu ezkontuz.
- PERT. - Lehenago ez nuen holakorik nahiko, bainan orain baditut hortako arrazoinak eta onak: etchean hobe dut, bakarrik baino norbaitekin; gero, bertzaldé. . ikusten dut, mutil zahar geldituz, munduan suntzizerat doala Perttolitarren arraza.
- CHUR. - Hori ere ala da. . E ta Perttolitarren arraza galtzerat heldu balitz, munduarrentzat galtze izigarria litake.
- PERT. - Nahi ala ez; Perttolitarrik ez litake, alabainan gehiago.
- CHUR. - Beltza litake, beltza munduarrentzat.
- PERT. - Horiche bera duzu bada, nik ere nere baitan egiten dutana.
- CHUR. - Hatzeman, hatzeman guk zaina.
- PERT. - Ezkontuz aldis, nere burua bizi ikusten ahaliko dut nefe haurrotan... Zer loria, Churrupero, ikustea nitarik sortu haurrak, bisai ttiki pullit batzu, dena ni iduriak, sukaldean jostatzen ari (Churruperori beha, baietz erranarazi nahi balio bezala)
- CHUR. - Errazu berriz.
- PERT. - Aita erranen daulet, Baionatik aratsetan nere karrosarekin etcherat sartzean. Zer loria (Berriz ere Churruperori beha)... Eta beren erasia suertean ariko zauzkit... eta beren ichtorioak kondatuko dauzkitet. Zer loria, Churrupero! Zer loria! Ori iduritzen zaut, jada lekien erdian naizela!
- CHUR. - Behazu, ez da deus etseginagorik. Ezkont zaito, ezkont ahalik lasterrena. Hora nere kontseilua.
- PERT. - Egia Churrupero? Hala kontseilatzen nauzu?
- CHUR. - Segurki Perttoli.
- PERT. - EGIazki konten naiz, adichkide gisan mintzo baitzare.
- CHUR. - Errazu, ta nor duzu, ez bainaz sobera kurios, delako...?
- PERT. - (Kontoeareko alderat beaturik) - Ez gintuzke Mayalenek aditu behar. Horren ahizpa, Mayie dut.
- CHUR. - Ba zera? Hemengo alaba?... .
- PERT. - Ba naski!
- CHUR. - Jesus, Jesus!

- PERT. - Ta? Zer iduritzen zautzu?
- CHUR. - Ez duenak balu!
- PERT. - Ez da ongi hautatua?
- CHUR. - Uste nuko!... Ezkontzekotan, ernatzen ahal zira, zure onetan.
- PERT. - Erne nere onetan? Zertako?
- CHUR. - Negha charmanta da alabainan, eta... ez baitu segur galdea eskas izanen!
- PERT. - Bo! Ez da nihorat atheratzen Mayie...
- CHUR. - Kabale onak etcherat beretat cherkaria.
- PERT. - Uste duzu, Mayiri, niork begia emana dion?
- CHUR. - Uste? Segur. . Kakerra ezagutzen duzu? Mayiren aitak, hura du bere gizona.
- PERT. - Kakerra?
- CHUR. - Kakerre.
- PERT. - Gizon ergela?
- CHUR.; - Zertako ergela?
- PERT. - C huriak nahi bezala erabilki dute... Etchez etche, hura ibilia da, hekien bozetako paporrekin. . Gaizo trichtea! Zerbaitekin da, ori, Mayik ez badu ~~xx~~ maite!
- C HUR. - Eta Mayiri gustatzen bazaio?
- PERT. - Kakerre bealako gizon mindua. Mayik nahi ote luko?
- CHUR. - Kontu, kontu, Perttoli.
- PERT. - Bainan, ... enuchenta ere da!
- CHUR. - Enuchenta ama ez enuchenta, kontu hari.
- PERT. - Ta, gero, gizon gosea da K akerre (kontuareko alde er kutsiz)) eta nausia, zikoitza! Ez dire dotearen gainean ados izanen .
- CHUR. - Nehork ezin erran (Biak ichilik golditzen dire; gero!)
- PERT. - Zer egin behar dut bada orduan?
- CHUR. - Erran dautzutun bezala, ernatu.
- PERT. - ~~Ernatu~~, ernatu... bigarren baizik ez bainaiz orduan?
- CHUR. - Hobe duzu oraino, hirugarren baino.
- PERT. - Zer, orai, hirugarren bat ere ba othe litake?
- CHUR. - Zertako ez? Mayik ere bere gustuko norbait izan dezake.

x x x x x x x

(Ostatu aintzinean dire Kapitaina eta Erriente. Perttoli eta Churrupero hekeri beha.)

- CHUR. - To, gure Jainkoa dobruarekin heldu! beha! Kapitan zaharra eta Erriente!
- KAPITAINA. - (kampan) Errepublikak, errepublikak! beti hori derabilkazue ahoan, Errepublikaren hazteko eta asetzeko sortuak bagino bezala.
- ERRIENTA. - (beti kampan) Bainan...
- KAPIT. - Zaude ichilik bada; bordin jakitate ttipiko gizona zare... jakitate ttipikoa.
(Erriente athe aintzinean utzirik, Kapitaina ostatuan sartzen da, kolera gorrian.)
- PERT. - Kapitaina sartzen da; ederki etorria duzu.
- KAPIT. - Ba, laster frog atuko dauiat, erriente purtchila, inofante miserable bat haizela.

PERT. - Agur, Jauna!

KAPIT. - (Perttoliri kasurik egin gabe, kamporat buruz)
Eskuara ahantzi eta frantsesa ez ikasi. (Churrupekerok Perttoliri koinu egiten dio, eta aheratzen da) Eta oraino haureri zerbaiz irakasteko protenzioea.....

PERT. - (Mayaleni) Orain ere zuen aitatchi ta hizkatuak dire.

KAPIT. - Bi solas bat bertzeari lotzen ez jakin eta arrazoinka ari nahi!

PERT. - Bere kechuan ez da niri ohartzon ere.

KAPIT. - Ez daukat hire burua apotchar!

PERT. - Zer erran ote dio Errientak, hola sumintzeko (kapitainari) -Errazu Jauna...

KAPIT. - Hortaraz geroz, aski duk amari haur egiten erakustea.

PERT. - Jauna!

KAPIT. - Gubi jakin, eta zernahi haizela uste. Urde!...

PERT. - Othoi, Jauna! . .

KAPIT. - Politikan hik sudurra sartu nahi! Debru K attalin gorri!...

PERT. - Othoi, Jauna, Othoi!

KAPIT. - Hi gure horrian buru? Ez gintuzket, to gizonik gabe!

PERT. - Othoi bada, Jauna, hitz bat banuke zuri orrateko.

KAPIT. - Zure zerbitzari (Perttoliri goiago kasurik egin gabe, kamporat beha) Ez diagu, ez holakorik onhartuko.

PERT. - (bere buruari) Oraikoa uste nuen, bainan ez nau ezagutzen ere.

KAPIT. - Holakorik guk onart? Ez orain, ez gero. Sekulan santan!

PERT. - (Mayaleni) Ichtant bat utz gaitzazu bakarrik. (Kapitainari) Zerk zaitu, hola kecharazten?

KAPIT. - A! Bazinakñi!

PERT. - Zerk bada?

KAPIT. - Errient tchar horrek errabiaraztën nau! Beilako ahuntzaren gisan, buka luze bezain labur du izpiritua.

PERT. - Zer nahi duzu! Adina ere hor da...

KAPIT. - Adina? Ez du egundaino haurraren adimendua ere izan.

PERT. - Utz-zazu, Jauna, hori burutik.

KAPIT. - Hats onean naiz, ori!...

PERT. - Zure baitara zaito...Banuke...

KAPIT. - Errepublikak eta berrika!

PERT. - (bere buruarekin) Litaniak berriz hasto. (Kapitainari) Othoi adi azu Jauna!

KAPIT. - Iñorant tcharra!

PERT. - Bainan, Jauna, adi-azu bada!

KAPIT. - Eskuara ahantzi eta frantsesa ez ikasi.

PERT. - Othoi, Jauna.

KAPIT. - EZ daukala bere burua apotchar!

PERT. - Baitake...

KAPIT. - Pitsik ez jakinki ota amari haur egiten erakutsi nahi!

PERT. - A ba?

KAPIT. - Politikan, horrek sudurra sartu behar?

- PERT. - Zuk orrazu!
- KAPIT. - Debru kattalin gorri!
- PERT. - Izen goitia ez du gaizki emane.
- KAPIT. - Hor/igure horrian buru?
- PERT. - Ez da oraino hala.
- KAPIT. - Ez dug u holakorik onPartuko.
- PERT. - Ahalaz ez, behar ere.
- KAPIT. - Ez orai, ez gero, sekuañ santan!
- PERT. - (kamperat buruz, nitsinean kapitainak bezala eginez) - Inorant tehar bat zare zu, eskuaga ahantzi eta frantsesa ez ikasia. Ez daukazu zure burua apotchar! pitsik ez jakinki eta amari haur egiten ikasi nahi! olitikan sudurra sartzen baduzu, guk sudurrean mutarda sartuko dautzugu. A Kattalin Gorri. Ez zare sekuañ-santan mere izanen, dobrurik ez baduzu!
- KAPIT. - Ez eta dobruak berekin balinbaditu ere.
- PERT. - Atchik hor! (Kapitainari) Harek badu bethi bere partea. Orai, Jauna, adi nezazu! Kontseilu bat badauzut galdatzeko. Gurea serioa da, arras serioa... (Kapitainak kisu egiten balu bezala egiten du) Zure ganik nahi nuke jakin, ongi eginen dutarez ezkontzea... Presuna charmanta da eta propia eta... eta biziki gustatua naiz. Baina aitak bertze norbait omen dio hautatua. Zu gizon aditua baitzare zer konseilatzen dautazu?
- KAPIT. - Erriont tehar horren prenzionea?
- PERT. - Haucho da gizona!... Jendea mintzo zautzu eta ez duzu kasurik egiten!
- KAPIT. - Othoi barka. Zer nahi duzu. ., nere kolerrarekin.
- PERT. - Utz zazu dnak bazter erate eta adi nezazu.
- KAPIT. - Bon. Zer da zure arrangura?
- PERT. - Badauzut zer bait errateko.
- KAPIT. - Nola mintzatu gogo duzu?
- PERT. - (Herituaren eginez) Nola mintzatu gogo?
- KAPIT. - Bai
- PERT. - Ta, mihiarekin, Jauna, zerekin nahi duzu mintza nadin?
- KAPIT. - Zoin mintzarotan ari gogo duzun, galdatzen dauzute.
- PERT. - A. hau bertzerik da.
- KAPIT. - Italianozi ari gogo duzu?
- PERT. - Ez!
- KAPIT. - Kaskoinez?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Españolez?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Latinoz?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Portugesoz?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Grekaz?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Frantsesoz?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Ebrooz?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Alemenez?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Ziriako?
- PERT. - Ze ziro?
- KAPIT. - Anglosez?
- PERT. - Ez
- KAPIT. - Turkoz mintzatu gogo duzu?
- PERT. - Ez du munta...
Turkoz mintzatu gogo duzu?
- PERT. - Ez Turko?
- KAPIT. - Rusianoz?
- PERT. - Eez!
- KAPIT. - Chinoz?
- PERT. - Eez!
- KAPIT. - Japonesez?
- PERT. - Ez eta ere.
- KAPIT. - Arabez?
- PERT. - Ez gizona, ez,
es kuaraz, eskuaraz...
- KAPIT. - A! Eskuarazi!
- PERT. - Azkonean!
- KAPIT. - Hesa zaito beraz bertzalderat. Beharri hau, mintzaira arrotzentzateko dut; bertzea eskuararentzatekoa.

PERT. - (Bertsolderat iragirik) Huren jostuak!

KAPIT. - (serioz) Zer nahi zinautazun?

PERT. - Kontseilu bat galdatu.

KAPIT. - Botzes?

PERT. - Zera...

KAPIT. - Norbaiz etxean boz-omaiterat ezin othor?

PERT. - Bekrik naiz etxean. Bainan...

KAPIT. - Hauzoan beraz?...

PERT. - Ez, ez. Bainan zera...

KAPIT. - Ahidotarik?

PERT. - Ez eta ere. Bainan, zera dut...

KAPIT. - Argitasunak behar?

PERT. - Prozeski.

KAPIT. - Lichton dirien gizonoz?

PERT. - Ba zera.

KAPIT. - Botz emateko maneras?

PERT. - Ez, ez, ez, ez.

KAPIT. - Botz emateko tenores?

PERT. - Ez eta ezetz. Ez dautzut bozik ez boz ematerik aipatzen!

KAPIT. - Errazu beraz, zerkariaz heldu zaren nere ganat. Ni, ez naiz alabainan sorgina, pentsatzeko.

PERT. - Mintzatzerat uzten baninduzu Jauna! (Birik betan mintzo dire aitzina Perttoli bereari) Hura zer erran nahi nautzun: Ezkondu nahi nukela. . nes-katcha edo batekin. Gostukoa nuke, bainan...

KAPIT. - (Perttolik erran artean) Gizonari mihia mintzatzeko emana zaio. Nola gogoetak, gauzen itchurk baitire, ... hala-hala eleak gogoeten itchurak ditutuzu.

(Perttolik, kechaturik, ahoa eskuz behin baino gehiagotan tapatsen dio. Kapitaino aitzina ari da, Perttolik eskua kentzen duen bezain laster.)

Bainan itchura horiek, gainerateko iduriak ez bezalakoak dire, zeren gainerateko iduriak, lehenotarik bertzelakoak izaten dire; mintzoak aldiz, berekin dauka bere lehena. . Horra zergatik, gogoa chuchenonik derabilkotenak, diren ere hobekienik mintzo.. Mintzoa denaz geroz, argitaratzeko bidetik hoberena, mintzoaz emadazu, beraz gogoan duzunaren berri.

PERT. - (Hasperen batean) Hau gizona!! Kamporat badao)

KAPIT. - (aitzina) Ba, mintzoa bihotzaren adiarazle eta gogoaren itchura. (Leihoko aitzineko badiraren giner t lupaturik kamporat buruz) Mintzoa, itchura bat da, lañoki gizonaren barneko berri ematen daukun itchura. . Eta.. gogotan arizteko eta mintzatzeko ahala baduzunaz geroz zergatik ez duzu mintzoaz behatu nahi?

PERT. - (kampotik) Ez dut bertzerik galdetzen, bainan ez nauzu aditu nahi!

KAPIT. - Beharri huntaz suri nego, emazu bada. Geroz dona, eskuaraz adiarazten. . ahalko duzu, adiarazi gogo duzuna.

PERT. - (Errotua) Bearrondoko bat ba gogotik (Gero, iduri deusez) Erraten nautzun beraz, Jauna...

KAPIT. - Laburki errazu, erran gogo duzuna...

PERT. - Ba, ba, ahal bezain laburki.

KAPIT. - Ez ar inguru-minguruka...

- PERT. - Bainen, Jauna...
- KAPIT. - Motz behar ez diren guziak...
- PERT. - Ez dut oraino, gizona, ole motz bat ateratzen ahal izan...
- KAPIT. - Lusoegi, lusoegi da...
- PERT. - (kocharirik) Nork ikusi du holako gizon bizirik!
- KAPIT. - Zer sumintzen zaro, erran gogo duzuna errateko ordo? Ori, orriant purt-
chila baino areagokoa zaitut zu...
- PERT. - Hori (errata-kalaka) elhe eihora.
- KAPIT. - Ni, jakitate duna naiz, eta jakitate handikoa.
- PERT. - Ez oraino ichiltzen...
- KAPIT. - Eta ez intraleko gizona, ni... (kamporat abiatu) Jakitate guzietan
aditua (Gibelot Jakintsuna, jakintzun handia... (kamporat buruz) Loge zahar-
reko ichtorioen ala berrikoen berri dakien gizona, (Gibela) Badakizkat ere,
paterre bezala, gramatika eta matematika; (kamporat) Mediku, barbior, mar-
chalgo, (gibelot) laborantzza, erraintza, hargintza, zurgintza ala zapataintza,
(sukaldetik othoratzen) politika eta mekanika.

x x x x x x x

(Kampotik heldu da Mayie.)

- MAJALENEK - Ha, ha, ha ha, ha... Ikusi dun?
- MAYI. - Nor, aitatchi?
- MAYAL. - Ha, ha, ha, ha, ha?...
- MAYI - Zer dun, gaicho gizonaz hola trufatzeko?
- MAYA - Trufatzen zer nahun; bainen nola egon irri/egin gabe
- MAYIE - Hau neska;
- MAYA - Hemen izan behintz, hik ere irri ederrik eginen hien.
- MAYIE - Irriz?
- MAYA. - Nik irri eta irri egin dutala. Erraten daunat, hik bietan eginen
huela? eta gochore oraino.
- MAYI - Ez dinat pitsik komprentitzen.
- MAYA. - Perttolik eta. Hemen egin duten komedia, ikusi beharke huen.
- MAYI - Zer bada?
- MAYA. - Perttoli hitaz agrades dun. Ha, ha, ha, ha, ha...
- MAYIE - Zer erraten dun? Perttoli? Ha, ha, ha, ha, ha.
- MAYA. - Baietz. eta Churrupero eta biak bulta on bat hemen egonak ditun...
eta... Perttoli. Churrupero eta nekretuka aritua zaion.
- MAYI - Nitaz?.. Oi, oi, oi, oi, oi!
- MAYA. - Ni sukaldetik huanat eta hementik sukalderat ibilki ninduan. eta
uste zitena ez huela komprentitzen nortaz ori zeiren? Ha, ha, ha, ha, ha!
- MAYI. - Zer du nere ondetik abiatu gogo?
- MAYAL. - Ba, ta nola.
- MAYI - Nahiko nintinan aditu.
- MAYAL. - Bazkaitean kondetuko. Ez dun berdian aita hemen izanen; ihiziret gana
dun eta eguna pasa din nik uste. Aitatchi berriz, igande guziz bezala ttan-
ttarekin bazkalduko dun.
- MAYI - Basakina, aitek Kakorro daukala neretzat?

- MAYAL. - Perttolik ez zekinan. Churruperok salatu zaion.
- MAYI - Nore Michel hemen balitz, zer irriak egin letzakken.
- MAYAL. - Gurekin bazkaltzerat ekarrazten bahu? ditor.
- MAYI - Egia, hala egin behar dinan. Irriz urjak eginen ditinagu hiruok eguerditan.
- MAYAL. - Nun hachemanen dun?
- MAYI - Noza nausion oraike ikusia dinat; komuniatzen ere zunan. Mezatik lekurat erroboteko alderat jo din.
- MAYAL. - Barurik?
- MAYI - Ba segur pilotan ari dun. Gaki naun ikusterat.
- MAYAL. - Perttolik ikusten bahu, muñuka berdin etorri zaun, karrikeren ordian. . ha, ha, ha, ha, ha. . .
- MAYI - Ichilago eman. . . Hor dun gero!
- MAYAL. - Erriente ere hor baita?. . Batera, azkenean ez daunat erran. . . aitatchi ervient chaharrarekin izkatutrik, errotua sartua dun etchean. Eta hemen aritua dun Perttoliri, okualako katichiman. Hori ninan bada oichtian...Ha, ha, ha, ha
- MAYI - Adituko haute, Mayalon.
- MAYAL. - Hoo, hoo Michelon gonbitatzerat. . Ichtantean denak kondatuko . . (Mayalon sukalderat abiatzen da eta Mayi ateratzen da)
- MAYI - (Atetik gibelerat etorririk. . .) Zer tenore dun?
- MAYAL. - Hamokak eta erdiak joak.
- MAYI - Hobe dinat naski etche gibelezik, gizon horiek ez ikusteko. Michelokin ere dirutuki sukalderat etorriko naun.
- MAYAL. - Hobe duzue, ba. Nahi niken, Pertolli - ta, berriz etor balite.
- MAYI - Ez ginikon pesta teharra behar. (bi ahizpak suntsitzen dire)

X X X X X X X X X X

- ERRIENTAK - (Perttoliri ate aintzinean agertzean) Ta, Churrupero ez da sartzen?...
- PERT. - Ez da urrun izanen. Ur-churiaren egterat gana da.... Ez da herritzeko bearturik ere; goiz huntan bada zerbait edanik.
- ERRIENT. - Botz horiek errotzen naute. Homen sartzea aski dut....
- CHURRU. - (Atetik sartzean) Judu herratua bezala zare, zu beraz, Jauna.
- ERRIENT. - Zer judu herratu?
- CHURRU. - Ez duzu esagutzen judu herratuaren kantua:(kantuz)
Sar ere bainitake zuekin ostaturat
Edan ere banezake zuen arno onetik.
Jarriko ez naiz, bainan egonen naiz chutik
Tormentek hartzen naute, oi jarriz geroztik.
- ERRIENT. - Jarrik edo chutik, nahi duzuen bezala, bainan zertarik edanen duzue?
- PERT. - Nahi duzunetik.
- CHUR. - (iduri ez nahi) Berriz edaten ari behar dugu?
- ERRIENT. - Ta zertarat etorriak gare bada hunat?
- CHUR. - Zerbait behar da pentsatu holako hotzekin, kampotik hotz, gure barneak bederen bero ditzagun.
- ERRIENT. - Gorritik?
- CHUR. - zer bada...
- PERT. (Churruperoekin batean kasik edo berehala gero) Alabainan?

- ERRIENT. - Niri ematen duzue , dudarik gabe , botza?
(Moyalenek zerbitzaturik pinta arnau, hiruek edaten)
- CHUR. - (klikakoan basoa husturik) Ni, ez naiz hemengoa Jauna.
- ERRIENT. - (Berriz basoa betherik) Bordin erran nahi du...
- CHUR. - Es baitut ordea boza hemen emateko eskurik: Espainean ekarria naiz.
- ERRIENT. - Es da munta. Ori, bertze pinta bat pagatzen dut. .
- CHUR. - Es munta, ez munta... Ez du muntarik , pagatzen ahal duzu beraz..(Berriz basoa husten du.
- ERRIENT. - E ta zu Perttoli? Ez duzu pitsik erroten.
- CHUR. - (Chutiturik) Ah, Jauna... Perttolik ere hemen jartzea aski du. (kantuz bururatzen du)
Tormentek hartzen dute, oi, jarriz geroztik (Gero aintzina mintzo)
Hilesker, Jaun Errienta. Perttolik baitauzu sekretu bat erratoko.. banoa
Eginen duzue Baskarri Jaunak.
(Churrupero ateratzen da; errientek pagatzen du)
- ERRIENT. - Zer duzu Perttoli?
- PERT. - (Moyaleni) Ichtant bat utzi behar gaituzu, Moyalen.
- ERRIENT. - (Astira) Perttoli, ez zaitela hola deblauki mintza. Ez dira gausok zir-tzar erran behar, bainan behar-badaka. . Ez erran beraz: kontseilu baten beharretan naiz; bainan iduritzen zdu, kontseilu baten beharretan naizela.
- PERT. - Iduritzen?
- ERRIENT. - Ba, iduritzen. Hala... Hala.
- PERT. - ORI, hau pollita dugu. . Iduritzen zait ba, hala denaz geroz.
- ERRIENT. - Ez uste izan , hal delakotz, zaitzula iduritzen; iduritzen ahal ez izanik ere.
- PERT. - Nola hori? Ez da ogia, kontseilu beharretan naizela? Eta Zuk ontzuten nauzula?
- ERRIENT. - Ez presoski. Iduritzen zait hor zarola; eta iduritzen zait mintzo naizela; bainan ez segur.
- PERT. - Zu ez bazare segur, ni hala naiz.
- ERRIENT. - Uste duzula errazu.
- PERT. - Trufakora zere naski? Huna ni eta horra zu. Ez da hor "uste" eta "nusk-gerik". Donoden, iduritzen ala ez iduritzen, utz dezagun, otoi, miki-maka horiek... Nere arrangura erran behar dautzut: Ezkondu gogo dut.
- ERRIENT. - B atere ez dakit.
- PERT. - Erran dautzutenez geroz...
- ERRIENT. - Baditake.
- PERT. - Andretzat hartu gogo dutana, neskatxa gazte bat da, charmanta eta propioa.
- ERRIENT. - Ez da ez ditakona.
- PERT. - Ongi eginen dut ezkontzea?
- ERRIENT. - Behar bada ba, behar bada ez...
- PERT. - Jesus... Hauche da ichtoria... (Errientari buruz) Galdetzen dautzut, Jauna delako neskatxarekin ezkonduz, ongi eginen dutenez.
- ERRIENT. - Nola den.
- PERT. - Gaizki eginen dut?
- ERRIENT. - Behar bada.
- PERT. - Othoi, behar den bezela mintza zaite.
- ERRIENT. - Hala egin gogo dut.

PERT. - Arras gostukoa dut noska hura...

ERRIENT. - Izen ditake.

PERT. - B akarrik neskaron aitek bertze gizon bat dauka beretzat.

ERRIENT. - Hori ere gerta ditakona .

PERT. - Ete orduan ni onhart ote nindozaque?

ERRIENT. - Beharbada, ba, beharbada ez!

PERT. - Zer diozu hortaz?

ERRIENT. - Pitsik ez!

PERT. - Bainan, zer egin zinezake nere plazan?

ERRIENT. - Ez dekit.

PERT. - Zer egin behar dut zure iduriko?

ERRIENT. - Nahi duzuna.

PERT. - Errabiarazten nauzu ori.

ERRIENT. - Ez naiz kechu, jazko haizeaz baino gehiago.

PERT. - (kochaturik) D obruck ibiliko haute, ez baduk gizonki mintzatu gogo!

ERRIENT. - Geroak erranen hori.

PERT. - Ez haiz, Kattalin-Gorri, bertzeak bezala mintzatzon ahal.

(Behar-ondoko bat ematen dio)

-To!!!

ERRIENT. - (Chutiturik) Ah, ah! . . .

(Perttoli ere chutitzen da)

PERT. - (lurrari beha bere buruari ari balitz bezala) Aski eman nahia egoki ninduan.

ERRIENT. - Zer... Niri holako afruntua... Ni bezalako errient errespetagarria... hola erabilitzeko kopeta baituk.. Dohakabea...

PERT. - (Astira aintzinean Errientek bezala) Ez zaitela hola deplauki mintza... Ez dire gauzak zir-tzar erran behar, bainan behar-badaka. Ez erran beraz: mazelako bat ukan dut; baien hola iduritzen zauzula.

ERRIENT. - (korporat berriz abian) Jandarmeterat noa?

PERT. - Ez naiz kechu jazko haizeaz baino gehiago.

ERRIENT. - Errien marka matrailean dut oraino.

PERT. - Bazukek.

ERRIENT. - Ple-ta okarwiko diat kontra.

PERT. - Egizak nahi dukana.

ERRIENT. - Garrazki kondenatua izanen haiz.

PERT. - Geroak erranen dik hori. (Bere buruari) Hau komedia. .

x x x x x x

(Mayalen sartzen da)

MAYAL. - Zer zinuten ola kechatzeko?

PERT. - Ez ditake pitsik odioraz edo erranaraz gizon bitchi horieri...Zuen aitatchi handitua bezon haurtua. Errienta berriz lanjerosa... eta ni aintzinean bezain asto...

(Ateratzen da)

x x x x x x

(Michel eta Mayie sukaldetik ateratzen iro)

MAYAL. - Egun hemen den komedia...

MAYIE - Orain Perttolik behar liken agertu, bazkariten ari giren artean.

MAYAL. - Ete Kakerre?

MAYIE. - Aita hartaz arras hartua dun; Baien bazakinatzer egin, burutik hura aterarazteko eta...Kakerre bere hotzararazteko: Hunat agertzen delarik... kecha errecha baita... ere biaraziko dinat eta burutik ganaraziko.

I I

(Sukaldoa, ostalera bera. Su handi bat. Atean norbait joka. Andresok idokiz-
zen du. Agertzen da Kakerre, beltch-beltcha beztia eta ttattaretan)

ANDRES - Kakerre da te. . Gaiso Kakerre...

KAK. - Aratsalde on, Andres.

ANDR. - Baina egun, Eguberri biaramuna, ta zu soinek horiekin? Zer zare, segur
enterramendu batetik heldu ..

KAKE. - Ez Jauna. Zure ganat bisitaz etortzeko ateratua naiz doi-doi etxetik.

ANDR. - (Tari aire batean) Ez ahal ditutzu bada, niri "aratsalde on" errateko,
soinean eman arropa hoberenak?

KAK. - Gauzen ongi egiten, badakigu jauna. (Sakelatik esku larra churiak aherat-
zen ditu, lanik azki ematen baitiote orrieta sartzea)

ANDR. -(Ostatu baretetik arnoa okaririk baseak betetzen ditu.) Jar zaite hor,
tresna zu... Eta zure osagarriari.

KAK. - Minuta bat, plazer baduzu. - (Paper handi bat sakelatik ateraturik eta
za baldurik, irakurtzen hasten da, bi eskuz atchikiz)
"Churitegi-ko Nausiari". Nausia:

ANDRES - Hunen jostuak...

KAKE. - (Aitsina) . ."Beti ongi-eterri dugun etxe maitagarri huntan, oinik
pausatzen ditut egun, zuri nahiz eskatu....

ANDRES - Zer?

KAKE. -(nekoz irakurtuz) ..."Zuri nahiz egingalde bat". .

ANDRES - Ez balinba?...

KAKE. - "Galde bat, zure ohoretan eta... nere onetan. (Hatsa hartzen du. Gero
aintsina irakurtuz) Aspaldiko urtetan, adichkide. adichkide. ."

ANDRES - Hara, erran gogoan duzuna.

KAKE. - Barkatu, begirat lambro bat etorri zait, eta lerroa galdu dut.

ANDRES. - Burua oro lerroarekin naski? Zure beitaraz zaito.

KAKE. - . ."a - a - adichkide hoberenak izaki eta... nik bihotza beratze. ."

ANDRES. - (Bere buruari) Zerbeit pretentioa badik hunek.

KAKE. - ..." eta sortzez chalketia... bizi guzikotz uros eginen nauden urrats hau
ez da gauza errecha... (papera lurrerat asten du bere ikaran) -Ai Andres!
ez zadazula ezotz erran; bertzela trempuchar nintke eta irriskotzen nuke
hiltzea!

ANDRES - (Bere buruari) Zeren ondotik ote dabila, Mayire dote partearon?

KAK. 6 (Berriz papera eskuan) "Choritegiko", ez, "Choritegiko", bo, "Chori.." Oh!
"Churi...Churi...Churitegiko nausiari... Nausiari. . nausiari." Ooo. .
Bihotz pilpirarekin, izpirituaketa denak nahasten zaizkit; ez dakit gehiago
zer erraten dutan.

ANDRES - Aditzen zaitut, aditzen ederki. Baina maluruski...

KAKE. - Maluruski?

ANDRES- Ostaturia behi hutsa.

KAK. - Bethen ontza?

ANDRES - Gorri politikero horiek direla medio, ez da gehiago nire gure etxerat
heldu.

KAKE. - Ez dira gauz'onik horiek.

ANDRES - Prezioak denak goiti ari, eta tatsak, dretcho k, zergak eta zarak...

KAKE. - Badakit bainan...

ANDRES- Norik berak daki bere chorriaren berri, ez da hala?... E z ditakerik ez ditake. Gauza den bezala orren behar da. Ez da hortan desohorerik. Eta, gu, beti adieklide izanen gare orai arte bezala.

KAKE. - Ez dut ikusten, zortarat ari zaren. (Iduri deus ez, aitzina irakurtzen du)... "Nausia, beti ongi etorria dugun etche maitagarri huntan ..."

ANDRES- Zonbat behar duzu?

KAKE. - (Aitzina) ... "Oinak pausatzen ditut egun..."

ANDRES- Zonbat?

KAKE. - ... "Zuri nahiz eskatu..."

ANDRES- Zonbat, errazu bada zonbat?

KAKE. - "Auzetzat: zure alaba Mayie. . ."

ANDRES- (Betbetan chutiturik) Nere alaba?

KAKE. - (hasperen batean) Zure alaba, nere Mayi. . .

ANDRES- Nere alaba zuretzat nahi duzu?

KAKE. - (hasperen batean) Zer loriz nukun. . .

ANDRES- (Kakorreri bizkarrean eta tripan joka) Gaizo Kakerre... Zato besarka zaitzadan ... Badakizu jada zuretzat aukala. (Besarkatzen du)

KAKE. - Nausi maitea...

ANDRES- Aita erradezu.

KAKE. - G auzak ongi egiteko, egun nahi nuen, behar bezala galdea oginik, zure bera aditu. Uste duzu, Mayik ere, baietz err non duela?

ANDRES- Ez dudarik izan. Nik galdetua oginen du... Josten ari da ahizpa gazte-arekin. Igorriko dauzute. (Andres aheratzen da)

x x x x x x x x

KAKE. - (Bakarrik, jendeari buruz) Irri egiten duzue? Ez dut nik irriarik. Izertitan eta daldaren nago... Hau zintzurteko traba... Koropilo bat banu nezala eta bihotza pilpitan... (Eskua bihotzaren gainean) Jo eta jo ari zait... Ez banaz oraino aldi-txartzen, erranen dautelarik: baietz... baietz oronoh daut?...

Hala erranen du. Huna zertako : onitz muthiko gaztek har lezaket... Bainen Mayi-ren aitek ez ditu nahiko; errepublikano gorasta horietarik baitire oraino muthiko gazteak... Gorrastak .. hala err ten diote bederen; ogia erran, horietan ere bada denotarik elizatiarrak ere..

Cho... ah... Horra Mayi holdu... Ago ichilik, bihotza; cho... cho!;..

x x x x x x x x

(Mayie sartzen da)

MAYI - Zu . Zu zare Kakerre.

KAKE - Bz

MAYI - Ori ez nuen hala uste

KAKE - Aitek ez dautzu erran?

MAYI - "Hoa sukaldetat, erran daut aitek, norbeit badu hiré galdez"

KAKE- Deusik ez aipatu?

MAYI - Bainen hauche da ... zein edorren zaren. Ezteiet rat abian edo zoz?

KAKE - Oraino ez... (Bere buruari) Ez naiz sokulan menturatuko. (Mayiri) Segur zare, aitek ez dautzula bertzerik deusik erran?

MAYI - Zertaz?

KAKE - (ahal bezala) Huna, erran nion... zuri... ba... nitaz.

MAYI - Ez daut zutaz deusik erran, Kakerre.

KAKE - (bere buruari) Deliberatu beharko diat! Baitezpada beharko deliberatu.

MAYI - Zer?

KAKE - Pitsik, pitsik.

MAYI - A barkatu, beraz. Uste nuen. .

KAKE - Zera.

MAYI - Nola?

KAKE - Nere buruarekij ari nintzen. Egiten nuen: "Deliberatu beharko diat baitezpada"... Mayi maitea, adi nezazu. Othoi, adi nezazu!

MAYI - Aditzen zaitut ba!

KAKE - Adi nezazu beraz; bainan adi nezazu niri behatu gabe; zeren behatzen bazira ezagutzen dut, errateko dituen guziak ez daukitzudala erraten ahalko...Eta nahaston banaiz, barka otoi, zeren arrunt nahasia banaiz...

(Eskorrekoko sakelatik paper bat ateraturik)

"Mihi maitea" ez "Mayi maitea"... Ikusten duzu.. (tarr paten aitzina irakurtzen du) "Mayi maitea, aspaldiko urtotan zuen gamilia ezagutzen dut; eta gure aitatchi zenak -Jainkoak berekin duela-. B adakizu berateko keta, hiltzean, ondoriotzat utzi baitzaukun,... beraz gure aitatchi zenak ostima haunditan zuen erduko homengo nausia zuen aitaren aitatchi zena..."

MAYI - Eta gero?

KAKE. -Zaude minuta bat, Mayi maitea, huna zertarat ari naizen: Erraten nuen beraz...(aitzina irakurtzen du) "Kakerretarrak eta churitegitarrak beti danik elgarrekin ongi dohatzi hauzo gisa. Fuentsak ere bat bertzearen aldean ditugu zuek eta nik, hain aldean, nun nere lur mutur bat, zuen baratzean barna heltzen baita.

MAYI - Nun?

KAKE - Utz nezazu erraterat.

MAYI - "Nere lur muthur bat" ez duzu erran?

KAKE - (batere darduzatu gabe) Ba, "Nere lur muthur bat" erran dut.

MAYI - Zer erran nahi duzu?

KAKE - Ta, nere lur mutura, erran bezala.

MAYI - Geizki ari zara.

KAKE - Ez.

MAYI - Ba, zeren lur mutur hori. .

KAKE - Lur mutur hori ?

MAYI - Gurea da.

KAKE - Etche gibeloko errekeren eta Fiko ondoaren arte hartaz ari gira?

MAYI - Uraren aldeko ipular kantaina, ba.

KAKE - Nerea da.

MAYI - Ez, gurea!

KAKE - Ez nerea.

MAYI - Zurea? Noizetik hunat?

KAKE - Beti danik Kakerretarrarena izan da!

MAYI - Beti danik Churitegitarrarena izan da.

KAKE - Ageriak hor dire, lekuko.

MAYI - Herri guziak erranen dautzu...

KAKE - Nerea dela erranen dute. Ezin ukatua.

MAYI - Zaude ichten bat.

KAKE - Zoude ichtant bat, zu ere , zu ere.

MAYI - Amatchi zenak.

KAKE - Justu, nere izobar Mayi -ttipiren kusinaren amatchik, zure aitatchoren koinatari emana zion lur horren gozamena, delako koinatari haurrek buren astoa hor elha zezaten; eta zure aitatchoren koinatari haurrek berrogei urtez gozatu ondoren berenarentzat zaukaten. Bainan zuen amatchoren koinatari seme zaharrena. . .

MAYI - Ez da hori batere hola... Gure aitatchoren koinatari haurren funtsen berne zen ipular mutur hori. Eta harritzen nauzu; Kakerre...

KAKE - Zuk ba harritzen nauzula, Mayie maitea.

MAYI - Ez dut baitespada lur mutur horren arran gura.

KAKE - (Eztiturik) Ez nik ere.

MAYI - (ezti-oztia) Hasteko ez du pipa bat tabako balio. Ez da hor ihi bera, tipul eta naharrik baizik heldu.

KAKE - Ez zaitela, Mayie maitea, hola kecha... Badakizu, astoa ere nere ttanta Mayi-ttipiren kusinaren amatchik eresia ziotela, zuen aitatchoren koinatari haur ori... Eta, berdin segurki ongi saristatur izan zen; gaizki ikasien eskorre, pokorra!

MAYI - (iduri samur, idor idorra) Lur mutur hori gurea da!

KAKE - Baitespada nahi duzunaz geroz, hori aski bada zuri plazer egiteko, gogotik present ginen dauzute, Mayie maitea.

MAYI - Ze ba! Bertzeonetik aise ari zare, Kakerre: Gurea, guri present egiterat prest. (Kakerrek zerbaite orren nahi du, Mayie ez du mintzatzerat uzten)

Kakerre, hauzo ona zinen guretzat, eta gu ere zerbitzu egiterat beti prest ginen zurekin. Eta hola erremestiatzen gaitutzu, kasaila bilatuz!!!

KAKE - Kasaila bilatzen nik?

MAYI - Eta... ipular hori, egiazki gurea dela zuri erakusteko, Joseph okernari pizaraziko diot.

KAKE - Zer erraten duzu? Zer erraten duzu?...

MAYI - Ipularreko bazka pizaraziko, ba, bihar berean, oraino.

KAKE - Ori, holerorik egizu.

MAYI - (Oihuka) Zertako ez? Ikusiko duzu.

KAKE - (Oihuka) Ai ez naiz trenpua...

MAYI - Ez duzu iduri!

KAKE - Trenpu tehartuko naizela beldur naiz. Bertzela, adi zinezazko zureak eta aste beltcharanak. (Bekoze beko biak betan)

MAYI - Apalago adituko zaitut bai ez naiz gogorra.

KAKE - Ez zaitela ar hola oihuka!

x x x x x x x x

(Andres sartzen da. Ate artetik ageri da Mayalen irriz ari. Hala egonen da gero ere.)

KAKE - A, nausia nausia, otoi bere baitaraz zazu, zure alaba, gauzak onhart detzan diren bezala.

MAYI - Errazu Kakerre, norena den gure baratzeko ipularra.

